

EDITORIALA

Diru sarrerak

Urteak daramatzagu fiskalitate zuzenaren eztabaida irekia piztu nahian, duela gutxi arte alderdietako eliteen arteko eztabaida itxia eta interesatua baitzen eta. Aditzera eman izan dutenez, nonbait herritarrek gai teknikoetan ez dute zer jakin beharrik eta ezkutaturiko bulego eta organoetan erabakiak hartzen dituzte herritarrei zama astun hori arintzeko. Bestelakoa da egungo egoera, eta krisiak azalera ekarri du fiskalitate zuzen eta egoki baten premia, gizarte eredu duin baten oinarrian baitago, eta justiziazkoa da, gehien dutenek gehiago ordaintzea.

Eztabaida plazaratu bada, horrekin batera alderdi eta administrazioen ikuspegia eta ekinbidea ere argiago ezagutzeko parada izan dugu. Administrazioek gastu soziala murriztea jarri dute bere ekinbidearen erdigunean eta doikuntza politikak ezarri dituzte helburu hori bete dadin, murrizketak nagusiki gizarte gastuan eman direlarik. Horren ondorioa zera izan da, besteak beste: langabezia eta pobrezia goraka doaz, gizarte babesa urritzen delarik. Egoera honetan bizitza duin bat aurrera eramateko baliabide gutxi duen jendeak are eta gehiago nozitzen du babesgabatasuna eta pobrezia daraman bidea. Makina aldiz errepikatzen ari garen moduan ez da harriztekoa herritarrek politikarekiko erakusten ari diren urruntasuna.

Ez dugu uste, dagoeneko, egoera hori aldatzeko borondate politikoa dagoenik, baina argudioei begira, gure ustez, arazoa ez da gizarte gastera esleituko beharko liratekeen diru funtsak, diru sarrera publikoak nondik ugaritu baizik. Eta Europan behin eta berriro erakusten diguten moduan, tarte handia dago fiskalitate zuzena burutzeko, bai gastu soziala handitzeko bidean eta diru sarrera publikoak igotzeko ere. Zerga politika alderdien arteko hika-mika mediatikorako balio badu, gobernu ardurak hartzen dituztenean ez da aldaketarik nabarmentzen. Horregatik, ELAk gardentasuna eta parte hartze soziala exijitzen du berebiziko garrantzia duen fiskalitate gaian; bere proposamenak plazaratzen ditu helburu hori egingarri bihurtu dadin; txostena egin du eztabaidarako lan tresna baliagarria gertatzeko eta bere konpromisoari eusten dio fiskalitate justuaren alde borrokatzeko.

En su informe sobre fiscalidad de 2013 ELA critica la injusta política fiscal y recuerda sus propuestas para incrementar los ingresos públicos

RECAUDAR MÁS E INCREMENTAR EL GASTO SOCIAL

-El informe de fiscalidad de ELA es ya un clásico...

-Llevamos muchos años denunciando que la fiscalidad en Hego Euskal Herria conlleva dos graves problemas: la insuficiencia de los ingresos públicos recaudados para cubrir las necesidades sociales y una injusta política fiscal, a la que se añade la permisividad con el fraude en las rentas no salariales. Y pasan los años y esos problemas siguen sin ser atacados.

El debate sobre la fiscalidad es central para el diseño de un modelo social justo. Su importancia es vital en cuanto que determina cuánto y cómo recaudan las administraciones. Las políticas de ajuste que llevan a cabo el conjunto de las Administraciones que actúan en Hego Euskal Herria se centran en el recorte del gasto, en especial del gasto social. Estas políticas están aumentando el paro, la pobreza y la desprotección social, dejando desamparadas a aquellas personas que menos recursos tienen, a quienes están sin empleo, sin vivienda, etc. Desde ELA siempre hemos defendido que el problema no es el gasto, sino la falta de ingresos públicos, es decir, la fiscalidad que tenemos.

-En este informe dáis especial importancia al apartado de propuestas en materia de política fiscal.

-En los últimos tiempos la política fiscal se ha convertido en un arma arrojada en la lucha entre los partidos políticos. Sin embargo, ELA ha denunciado que la realidad nos muestra que, aunque se dé alternancia en los Gobiernos, la política fiscal no varía, y sigue habiendo una enorme diferencia respecto a la europea.

Este informe pretende ser un instrumento de ayuda en este camino. Su objetivo principal es mostrar que hay margen para el cambio, que otro sistema fiscal es posible, y que en otros lugares existen otras realidades, lo cual también es posible aquí. Una vez más, sólo es cuestión de voluntad política.

-Pasemos a desgranar el contenido del informe. Seguimos a años luz de lo que se recauda en el resto de la UE.

-Tenemos un diferencial de 7,7 puntos del PIB, lo que signi-



Mikel Noval e Iñaki Zabaleta, miembros del gabinete de estudios y autores del informe sobre fiscalidad, consideran que la política fiscal de nuestras administraciones es injusta, y destacan que, como hasta ahora, ELA seguirá luchando y movilizándose en favor de otro modelo fiscal.

fica que si en 2011 la presión fiscal de HEH fuese la misma que la media de la UE-27, se habrían recaudado 6.560,6 millones de euros más. Sólo hay seis estados en la UE-27 que tienen una presión fiscal menor. Y la diferencia con Dinamarca, que es el estado con mayor presión fiscal, es de 18,5 puntos (equivaldría a que en HEH se recaudasen 14.143,5 millones de euros más). En Navarra la diferencia de presión fiscal respecto a la media europea es de 9,9 puntos. Si Navarra tuviese la presión fiscal media europea, habría recaudado 1.932,1 millones de euros más.

Sigue en la página 2

ESKERRIK ASKO, ESKOZIA

Irailaren 18an Eskoziarrek euren etorkizun politikoa erabakitzeak aukera izan zuten. Guztira boza emateko eskubidea zuten lagunen %84,59ak hartu zuen parte 'Herrialde independentea izan behar al luke Eskoziak?' galderari erantzuteko antolatuta zen erreferendumean. Azken zenbaketa eginda 'ezezkoak' irabazi zuen, bozen

%55,3 lortuta; 'baiezkoaren' alde, berriz, herritarren %44,7 agertu zen.

Testuinguru honetan, ELAk herri eskoziarra zoriondu nahi du, eta poztu egin da independentziari buruz erreferendumean erabaki demokratikoa hartzeko aukera izan duelako. ELA ziur dago hasitako

bide honek ez duela atzera bueltarik: gauzak ez dira berdinak izango aurrerantzean, ez Eskozian, ez Europar Batasunean. Gure soberaniaren alde borrokan ari garen estaturik gabeko nazioek erreferendum honetatik ondorio ugari atera ditzakegu. Eskerrak, Eskozia, bidea urratzeagatik!

Lankidetu!

→

-Insistís en una denuncia que no cesa: el fraude fiscal.

-En la CAPV, la renta media declarada en el IRPF por quienes declaran rentas de trabajo como actividad principal fue de 20.531,5 euros en 2012, mientras que la de quienes declaran actividades empresariales fue de 12.758,1 euros. Es decir, la renta media declarada de trabajo es 1,6 veces mayor a la renta media empresarial declarada. Además, la diferencia entre los distintos tipos de rentas declaradas ha aumentado en los últimos años.

En Navarra, la renta media declarada por las rentas de trabajo fue de 22.632,4 euros en el ejercicio 2010, 10.522,8 euros superior a la renta media declarada por actividades económicas, que fue de 12.109,6 euros.

-Otro punto que abordáis es la propuesta de reforma fiscal que ha elaborado el gobierno de Navarra. ¿Qué valoración hace ELA?

-Esta propuesta de reforma fiscal ahonda en la política fiscal que se está llevando hasta ahora en Navarra. La principal consecuencia va a ser la reducción de 75 millones de euros en la recaudación, y se llevará a cabo bajando los impuestos, casi en exclusiva, a las grandes rentas y las empresas más grandes. De esta forma, se ahonda en un sistema fiscal injusto y se favorece la acumulación de capital en manos de una pequeña parte de la sociedad. Eso, sin olvidar que una menor recaudación supone peores servicios públicos y menor cobertura social. Esta propuesta supone, por tanto, seguir con la política de recortes que está empeorando la situación de la sanidad, educación, servicios sociales, pensiones, etc. Es una reforma que va en contra de quienes más necesitan cobertura social. Por si fuera poco todo lo anterior, el gobierno navarro sigue optando por la permisividad en el fraude fiscal, ya que ni siquiera lo menciona en su propuesta.

PROPUESTAS DE ELA SOBRE FISCALIDAD

1. LUCHA CONTRA EL FRAUDE FISCAL

El fraude fiscal, cometido principalmente por las rentas no salariales, es la principal lacra del sistema tributario de Hego Euskal Herria. En consecuencia, se debe:

- Aumentar los niveles de inspección: Inspeccionar todas las rentas no salariales en un plazo máximo de 5 años.
- Cambiar los métodos de trabajo de la inspección.
- En consonancia con el aumento necesario de las inspecciones, incrementar sustancialmente los recursos económicos, técnicos y humanos destinados a la administración tributaria.
- Penalizar de forma suficientemente desincentivadora la actividad de quienes facilitan el delito fiscal (profesionales, despachos,...).
- Obstaculizar la utilización de los paraísos fiscales, castigando a las personas o entidades que operen en éstos, especialmente a las entidades financieras.
- Crear una Oficina anti-fraude multidisciplinar, de carácter interinstitucional.
- Realizar un ataque completo contra el fraude, y no un ataque parcial.
- Investigar el fraude fiscal organizado, blanqueo de capitales y delincuencia económica.
- Crear la policía fiscal.
- Especialización de la fiscalía y Tribunales en la lucha contra el fraude y el gran fraude.

2. LUCHA CONTRA LA ELUSIÓN FISCAL

- Obstaculizar la elusión fiscal, es decir, los mecanismos legales que permiten pagar menos impuestos. Estos mecanismos son utilizados principalmente por las grandes fortunas y empresas, que acaban pagando menos impuestos que cualquier renta de trabajo.
- Gravar a los grupos multinacionales y otras empresas con sede o actividad en Hego Euskal Herria que deslocalicen sus operaciones por motivos fiscales.
- Luchar contra las nuevas formas de elusión fiscal que existen en la actualidad, fruto de una nueva realidad que necesita de nuevas formas de actuación y nuevos recursos de lucha contra la misma. El caso de las multinacionales que operan en distintos estados, y acaban pagando el mínimo posible allá donde pueden, es sólo un ejemplo.

3. IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

- Impedir la constitución de empresas familiares o holdings que dejan exentos de este tributo a los grandes patrimonios familiares. Adoptar medidas normativas para evitar la ingeniería fiscal en general.
- Eliminar los regímenes especiales del Impuesto sobre Sociedades.

-Impedir que se puedan constituir sociedades unipersonales con el objetivo de tributar en el Impuesto sobre Sociedades en lugar de en el IRPF y pagar así menos impuestos.

- Establecer el tipo nominal en el 35%.
- Introducir la tributación mínima efectiva del 24%.
- Eliminación progresiva de las deducciones fiscales regresivas.

4. IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO

El Impuesto sobre el Patrimonio debe convertirse en un medio de recaudación real, ya que sus elevados mínimos exentos y sus bajos tipos aplicables hacen que su recaudación sea residual.

5. IRPF

La estructura actual del impuesto da cobertura a un sistema fiscal injusto, por lo que es necesario:

- Recuperar la progresividad perdida en la escala del IRPF, tanto en lo que afecta a los tipos como a los tramos de la tarifa.
- Eliminar el trato privilegiado de las rentas de capital, que tributan al tipo máximo del 22% en Bizkaia y Araba, y del 23% en Gipuzkoa, y al 19% y 21% en Navarra. La base imponible del impuesto debe ser única. Debería establecerse un recargo a las rentas del capital.
- Suprimir el régimen de módulos del régimen de estimación objetiva del IRPF.
- Garantizar de forma automática la deflactación anual de la tarifa del IRPF en base al IPC.
- Avanzar hacia la eliminación de las deducciones del IRPF, sobre todo las más regresivas. Establecer una tributación más favorable para las pensiones del sistema público que para las EPSV.
- Eliminar la exención aplicada a las rentas irregulares percibidas en forma de capital.

6. SECTOR FINANCIERO

- Crear un nuevo impuesto que desincentive la financiación bancaria vía deuda.
- Un impuesto sobre las actividades financieras que incluya un tipo especial para los salarios variables y beneficios extraordinarios.
- Un impuesto para las transacciones financieras.

7. ESTABLECER UN MÍNIMO DE TRIBUTACIÓN EN SUCESIONES Y DONACIONES

8. INFORMACIÓN Y PARTICIPACIÓN SOCIAL

9. COMPETENCIAS PLENAS EN MATERIA FISCAL

10. LEGISLAR EN MATERIA FISCAL DESDE EL PARLAMENTO

LABURREAN / BREVES



● **Contra la persecución sindical en la Residencia de Ancianos de Lodosa**

Las trabajadoras de la Residencia de Ancianos de Lodosa –gestionada por GSR, empresa que pertenece al Grupo Mondragón– han iniciado una serie de

movilizaciones para exigir la readmisión de las 17 compañeras despedidas y denunciar la cada día más preocupante persecución sindical por parte de los responsables de la Residencia.

Las trabajadoras denuncian que la entrada en la gestión de esta Residencia por parte de GSR ha supuesto un empeoramiento en las condiciones de trabajo, así como al ambiente colectivo del centro, que afecta al servicio que se presta a los residentes. La plantilla considera que el trato que dispensa la dirección del centro a la plantilla solo puede calificarse de vejatorio, y solicitan al Ayuntamiento de Lodosa que intervenga y exija a la empresa que cese en su persecución a la plantilla y a las delegadas de este centro.

Por último, –destaca el comunicado realizado por las trabajadoras– quieren agradecer el apoyo que están recibiendo de los vecinos y vecinas de Lodosa. “Vamos a seguir movilizándonos hasta que en esta empresa se reconduzcan las relaciones laborales”, concluyen.

● **Gipuzkoako Aldundiak Kutxabanki buruz egindako proposamena norabide egokian doa**

Kutxabanken pribatizazioen kontrako plataforma osatzen duten eragileetako ordezkariak, ELA tartean, agerraldia egin zuten irailaren 18an. Bertan, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kutxabanki buruz egindako proposamena norabide egokian doala azpimarratu zuten. Gipuzkoako Foru Aldundiak berriki plazaratu duen txosten batek azpimarratzen duenez Kutxen eta Banku-Fundazioen Legea aintzat hartuta ere ez da derrigorrezkoa pribatizazio prozesua.

Plataformako kideek argi utzi zuten ezinbestekoa dela orain arteko bidean atzera egitea eta Euskal Aurrezki-Kutxen izaera publiko eta soziala bitarteko guztiak erabiliaz defenditzea. “Ez dago haiek likidatzeko eta pribatizatzeko arrazoi sozial, ekonomiko edo politikorik. Orain arte egindako pribatizazio bidean atzera egin behar da”.

ESKOZIA, KATALUNIA... EUSKAL HERRIA



ELAK zoriondu egin nahi du herri katalana, baita Diadaren arrakasta ziurtatzeko lan egin duten erakunde guztiak ere. Katalunian bizitakoa adierazpen demokratikoaren mugaria izan da etorkizuna bere kabuz erabaki nahi duen herri batentzat. Herritarren adierazpide hau bihurtuko ahal da esparru politikoan espainiar Estatuak jarriko dituen oztopoak gainditzeko besteko borondatea!

Katalunian gertatzen ari den guztiak gure ustez bi oinarri oso argi ditu. Batetik, mobilizazio soziala: antolatua, zibila, baketsua, demokratikoa, oso errotua, ez alderdikoia eta transbertsala, nahi dutenen artean Katalunia subjektu politiko izatea, zeinak bere etorkizuna erabakiko duen. Hau ukatzen dutenak kanpoan geratzen dira. Bestetik, kontsultaren aldeko alderdien adostasuna: Estatuak beren erreibindikazioei eman dien uko gotorra ikusirik, ondorioztatu dute konfrontazio demokratikoa beste biderik ez zaiela geratzen. Alderdiok eta beren instituzioek (TV3 bezalako erakunde publikoak barne), ukapenari aurre egiteko pedagogiaren bidetik jo dute.

Txalotzekoa da eztabaida politikoa

eta demokratikoen esnatzea. Orain arte zaintzapean edo galarazita zeuden. Pozgarria da debate demokratikoa ez agortzea mugak ezartzen dituzten eliteen arteko tratuetara. Garai interesgarriak bizi ditugu.

Gainera, ELAK prozesu kontzeptuari ematen dio arreta berezia. Katalunian prozesua dagoela ukazina da. Bideari ekin ziotenean, Asmblea Nacional de Catalunya osatu zutenek ez zuten inola ere uste urte gutxiren buruan irailaren 11ko argakia lortuko zutenik. Baina hala izan da. Errealitateak alda baitaitezke. Lidergoa, ikuskera estrategikoa, elkarlanaren balioa, proposatzeko eta ilusioa pizteko gaitasuna... Horietxek dira dituzten bertuteetako batzuk. Erabaki zuten bazegoela bizitza esparru instituzional eta alderdietatik harago eta, eskubideak lortzekotan, klase politikoari bultzada eman behar zitzaioela. Gaur jendarte mobilizatu horrek prozesuari eusten dio; sinesgarri egiten du eta asko eragozten du piztu diren itxaropenak zapuztuko litzuzkeen eliteen arteko akordio bat.

Katalunian, Eskozian eta Euskal Herrian gure herrion subiranaren aldeko garenok onartzen dugu gure aukera erreferendum batean galtzaile izatea. Haatik, horixe ez dute ametitzen espainiar Estatuak eta itun konstituzionalaren bermatzaileek (PP eta PSOE). Bozkatzeko aukera ukatzen dute ez dutelako onartzen galtzaile izaterik.

ELAren irudiko, espainiar Estatuaren ordena guztietan inboluzioan sartuta dago: politikan, kontu sozialetan, juridikoetan... Prozesu subiranistari amaiera emateko bere ziurtasuna, oraingoan ere, Kode Penalean eta PPK eta PSOEK osatutako Auzitegi Konstituzionalean datza.

Euskal Herritik ikusita, badira Kataluniarekiko zertzelada komunak eta desberdintasun deigarriak. Estatuarekiko harremanari dagokionez ez dago diferentziarik. Estatuak Euskal Herrirako duen agenda aldebakarrekoa da, Eusko Jaurlaritzak besterik saldu nahi digun

arren. Hala izan da, baita aurrerantzean ere. Aldebakarrekoa da, baina hala ere burujabetzaren aldeko ez gara gauza Estatuari aurre egiteko gutxieneko batzuk adosteko. Hau handicap handia dugu. Gainera, mobilizazio sozialaren egituratzeak gure herrian bide luze bat ibili beharra dauka aurretik. Etorkizuna izango badu, ezin da inorentzat instrumentala izan. Beste datu bat: Katalunian 700dik gora udalek (guztira 900 inguru dira) adierazi dute independentistak direla.

Goazen berriro Estatuaren agenda-ra: Benetan ote da aldebakarrekoa arlo guztietan? Hala da normalizazio politikoari dagokionez (presoak, amairik gabeko sumario politikoak, epai politiko lotsagarrien poderioz espetxeratutako buruzagi politikoak...); baita autogobernuaren auzian ere, Estatutua erabat desitxuratu baitute oinarriko legeen bidez; Foruaren Hobekuntza, berriz, gero eta ezdeusagoa da... Zer gertatzen da ordena sozial eta ekonomikoan? Aldebakarrekoa al da? Ez. Estatuak Europarekin hitzartzen du politika ekonomiko eta soziala (doikuntza eta erreforma estrukturalak), baina Hego Euskal Herrian nola aplikatuko den Gasteizko eta Iruñeko gobernuarekin adosten da. PPrekin eta Estatuarekin dagoen aldeko harreman bakarra pairatzen ditugun politika ekonomiko eta sozialak ezartzeko da. Gainerakoan Eusko Jaurlaritzak pultso politikorik ez dauka, eta zentralizazio uniformatzaile salatzeko gauza bakarra egiten du, Auzitegi Konstituzionalean helegiteak sartu; hori, duela hogeita urte esan zuten ez zutela horretara joko organo politikoak zelako. Alegia, Madrilekiko UPNk duen jarrera "oldarkor" berbera.

Politika soziala bidezkoa balitz, jende asko erakarriko luke prozesu subiranistara (hori gertatu da Eskozian). Hala ere, akordioak politika antisozialak aplikatzeko egiten dira; behar handiena duten pertsonak zigortzeko. Polemika itxura eman arren, Gasteiz edozer adosteko prest dago: defizita bete eta zorra ordaintzea; Kutxabank pribatizazioa; zerga-politika; sosa xahutzen

dituen AHT baterako dirutza bideratzea... ELAK berriro dio: subiranismoaren etorkizuna eredu sozialarekin lotuta dago, ez helmuga gisa –hau ere baden arren–, prozesuarekin batera hasieratik doan oinarriko osagai moduan baizik. Independentista ez ziren eskoziar askok "yes" botoa ematen dute Londresko botere politikoa City-arentzat lanean jardutea arbuiatzen dutelako. Kokoteraino daude. Berton ere subiranista ez den pertsona asko ibilbide hori egiteko prest legoke, baina ez politika hauekin.

Indar politiko katalanek esan digutenez, deitoratzeko da Eusko Jaurlaritzak eta EAJK gako politikoak aldatzeko aukera baztertzeko, noiz eta espainiar Estatuarekin 1978tik hona aitortza nazionalari dagokionez izan den talka politikorik gogorrena gertatzen ari denean; ez dago erreferentzia politikorik berririk. Eusko Legebiltzarrean autogobernari buruzko batzorde bat eratzea Estatu Politikoarekin izandako esperientzia errepikatzea da: Ibarretxe Lehendakariari Madrilen eman zioten zaplaztekoaren ondoren tiradera batean gorde zuten. Estatuak ematen duen ezezkoari buruz pedagogia politikorik ez egitea gatazka politikoa lokartzea da, Estatuak berearekin jarraitzen duen artean. Mobilizazio sozialari mesfidantzaz begiratzea, aldiz, elite arteko akordioak lehenestea da; alta, azken urteotan halako akordioek atzerapauso politikoak ekarri dituzte. LOAPAtik hona kalean ez da era honetako aldarrikapenik egin.

Gaur, Kataluniarekiko, antzeko osagai baino desberdintasun gehiago dago. Gurean norgehiagoka da nagusi, eta horrela ez dago prozesurik. ELAK babesa ematen die Gure Esku Dagoaren moduko plataformei, eta dei egiten die bere afiliatuei parte har dezaten. Erreferentzia politikorik berriak, gatazka sozialean zein nazionalean, ez dira mobilizazio sozialik gabe iritsiko.

Adolfo Muñoz Sanz, ELAko idazkari nagusia (Oharra: artikulua Eskoziako erreferendumaren bezperatan dago idatzia)

PERIODO CONCENTRADO DE ELECCIONES SINDICALES 2014-2015

ELA ARRASA EN LOS AYUNTAMIENTOS

El 1 de septiembre comenzó el periodo concentrado de elecciones sindicales; hasta el próximo 31 de mayo es tiempo de renovar más de la mitad de las y los delegados que hay en la actualidad en Hego Euskal Herria.

El proceso no ha hecho nada más que comenzar. Hasta ahora no son muchas las empresas en las que se hayan realizado elecciones, la mayoría PYMES, es decir, empresas de menos de 50 trabajadores/as. Sin embargo, ya hay varios resultados que merecen destacar, sobre todo en los ayuntamientos. Desde que comenzó el periodo concentrado ELA viene reafirmando su liderazgo en los ayuntamientos. Los datos de municipios como Bedia, Elorrio, Orozko, Iru-

ra y Cortes no pueden ser más positivo: ELA ha conseguido todos los delegados/as en juego.

Además, es importante destacar dos resultados de Araba. Por una parte nuestro sindicato ha logrado los 9 delegados/as del Centro de Cálculo y T.I. de Alava, situado en Gasteiz. Un resultado que tiene todavía más importancia si tenemos en cuenta que hasta ahora ELA no tenía representación. Además, el brillante trabajo que han realizado las y los trabadores del sector socio-sanitario de Gipuzkoa empieza a dar sus frutos en otros herrialdes, como lo demuestran los datos de la Residencia Goizalde de Gasteiz. (Ver cuadro adjunto).

ALGUNOS RESULTADOS ELECTORALES

ARABA

- * Centro de Cálculo y T.I de Alava. (Gasteiz) **9** de 9.
- * Residencia Goizalde. (Gasteiz). **3** de 3.

BIZKAIA

- * Ayuntamiento de Bedia. Bedia. **1** de 1.
- * Ayuntamiento de Elorrio. **3** de 3.
- * Sociedad Santa Ana de Bolueta. (Abanto Zierbena). **3** de 3.
- * Ayuntamiento de Orozko (Funcionarios/as). **1** de 1.
- * Ayuntamiento de Orozko (Laborales). **1** de 1.

GIPUZKOA

- * Lanik Ingenieros. (Asteasu). **5** de 5.
- * Ayuntamiento de Irura. **1** de 1.

NAVARRA

- * Ayuntamiento de Cortes. **3** de 3.

LABURREAN / BREVES

● ELA no volverá a la Mesa Negociadora hasta que Osakidetza concrete sus propuestas

El 15 de septiembre se celebró una nueva reunión de la Mesa Negociadora de Osakidetza. Una reunión decepcionante, donde la dirección de Osakidetza no dejó margen para una negociación real. Peio Igeregi, responsable de ELA en Osakidetza, destaca que desde los sindicatos con representación en la Mesa Negociadora se plantearon diferentes medidas concretas para la mejora del empleo y del sistema público de salud. Sin embargo, añade, "Osakidetza no solo se negó a meter en el punto del día nuestras propuestas, sino que no concretó ninguna propuesta. El tiempo pasa y seguimos como hace meses. Por lo tanto, desde ELA tenemos claro que no volveremos a la Mesa Negociadora hasta que Osakidetza realice propuestas concretas que mejoren la calidad del empleo y garanticen unos servicios públicos de calidad".

Ante este panorama Igeregi considera que no queda otro camino que la movilización. "En la reunión del 15 de septiembre quedó claro, una vez más, que Osakidetza no tiene ningún interés en una negociación real. Por lo tanto ELA, junto a los sindicatos con los que nos estamos movilizando los últimos meses, continuará con su lucha. De este modo, el jueves 18 de septiembre hubo encierros en los principales hospitales. Además, para el 4 de octubre se han convocado manifestaciones en Bilbao, Gasteiz y Donostia. En caso de que la dirección de Osakidetza siga con su actitud, ELA convocará nuevas movilizaciones que incluirán paros y jornadas de huelga".

● ELAk bat egin zuen Sare ekimenak preso en eskubideen alde egindako ekimenarekin

Sare herritar taldeak euskal preso politikoei sufritzen duten dispersioarekin amaitu eta euren hurbiltzea eskatzeko ekitaldia antolatu zuen irailaren 20an Bilbon. (Oharra: Astekariaren ale hau irailaren 19an itxi zen). ELAk bat egin zuen ekitaldiarekin, eta bertan parte hartzeko deia luzatu zien sindikatuko militantei. ELArentzat lotsagarria da, eta eskandalu politikoa, espainiar eta frantses estatuek hamarraldi luzetan beren legea urratzea sakabanatze politikarekin, eta Estrasburgoko Giza-Eskubideen Auzitegiak emandako doktrinari entzungor egitea. Estatu hauentzat presoak ez dira pertsonak, eskubideak zor zaizkien subjektuak, bahituak baizik, hainbat helbururekin: beren familiei etsiaraztea, euretako gehienek militatzen duten mugimendu soziopolitikoa erretzea eta gure herrian sor daitezkeen bestelako dinamika politikoak eragozteak.

● Egunkariaren auzi ekonomikoaren epaiketa bertan behera uzteko eskaera

Irailaren 19an Gipuzkoako Auzitegiak *Euskaldunon Egunkaria*-ren auzi ekonomikoaren epaiketa egin edo ez aztertu zuen. Hain zuzen, epaiketa bertan behera uzteko eta auzipetuei babesa eskaintzeko hainbat bilkura egin ziren Donostian. ELAko ordezkariak zabal batek parte hartu zuen protesta ekintza horietan.



● ELA denuncia la falta de información en torno a Condesa

Gustavo López de Armentia, responsable de la Federación Industria eta Eraikuntza en Araba, denuncia la falta de información y transparencia que sufren tanto la plantilla como los responsables sindicales de Condesa, empresa del metal situada en Araba. "Hay que recordar que el Grupo Condesa se encuentra desde comienzos de año en precurso de acreedores. En este sentido tenemos que denunciar que la dirección nos niega sistemáticamente cualquier información sobre el proceso, lo que, lógicamente, provoca una gran incertidumbre en las 250 personas que componen actualmente la plantilla".

López de Armentia destaca que la mala gestión del actual consejo de dirección es la responsable de que el Grupo Condesa se encuentre en precurso de acreedores. "Hablamos de un grupo totalmente viable, que es líder europeo en el mercado de tubo soldado. Sin embargo, la pésima gestión de la dirección es la que ha provocado el alto endeudamiento. Ante esta situación exigimos información clara y veraz, garantías de nuestros puestos de trabajo y la implicación de las administraciones: Gobierno Vasco, Diputación de Araba...".

● La plantilla de TEPESA, en huelga indefinida

Las y los trabajadores de la planta de TEPESA –Terminales Portuarias S.L.– en Zierbena se encuentran en huelga indefinida desde el 9 de septiembre. El motivo es el despido de siete trabajadores/as de la planta de Zierbena; a estos despidos hay que añadir otros 32 que la dirección de TEPESA ha anunciado para las plantas de Barcelona, Tarragona y Valencia.

Aitor Garriga, miembro de la Federación Industria eta Eraikuntza, denuncia que el único objetivo del ERE presentado por la dirección de TEPESA es chantajear a la plantilla para reducir salarios y empeorar las condiciones laborales. "No hay motivos objetivos para la presentación de un Expediente de Regulación de Empleo. TEPESA ha repartido dividendos por un valor de 10 millones de euros en el periodo 2009-2012. Lo único que quieren es atemorizar a una plantilla que hace dos meses firmó un convenio de empresa que recogía cláusulas para impedir la entrada de la reforma laboral".

● Mutuen inguruko erreforma erretiratzea eskatu du ELAk Eusko Legebiltzarrean

ELAko lan osasun arduradun Leire Txakartegik eta Leire Herediak agerraldia egin zuten irailaren 17an Eusko Legebiltzarrean. Bertan Gizarte Segurantzako Lan Istripu eta Lanbide Gaixotasunen Mutuen inguruan emandako legezko aldaketak azaldu eta hauekiko ELAk egiten duen balorazioa agertu zuten. Txakartegi eta Heredia lege-aldaketa hauen aurka agertu ziren, "osasunaren sistema publikoa pribatizatzeko bidean sakontzen duelako –urteak dira prozesua hasi zenetik– eta mutuei botere handiagoa ematen zaielako". Hori dela-eta, Mutuen eremuan emandako legezko aldaketek bertan behera uztea eskatu zuten, erreforma erretiratzea exijituz.

● Asientos del Norte pretende despedir a 41 personas

La dirección de Asientos del Norte –proveedora de la multinacional alemana Mercedes-Benz– presentó el 8 de septiembre un Expediente de Regulación de Empleo para extinguir los contratos de trabajo de 41 trabajadores y trabajadoras, lo que supone más del 30% de la plantilla actual. Para denunciar este nuevo ataque contra el empleo –no olvidemos que hablamos de una empresa que año tras año declara importantes beneficios– todas las secciones sindicales de ELA en el Parque de Proveedores de Mercedes-Benz han convocado diferentes movilizaciones. En un comunicado conjunto estas secciones sindicales exigen la retirada inmediata de este ERE y la apertura de un proceso de diálogo sin imposiciones ni chantajes.



www.ela-sindikatua.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook

ELA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikatua.eus

Franqueo concertado
nº 08/207